AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2768

776/2013 EBAZPENA, maiatzaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Juan Manuel Sanzo Ollakarizketa jauna Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatzen duena.

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 21eko 601/2013 Ebazpen bidez argitaratu zen, 2013ko apirilaren 16ko EHAAn (72. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, eta bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Juan Manuel Sanzo Ollakarizketa jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Juan Manuel Sanzo Ollakarizketa jauna Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.